# XEDAPEN OROKORRAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 2160

*HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: 190/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak aurkitu dira honako dekretu honetan: 190/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena. Dekretu hori 2013ko apirilaren 24an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 78. zenbakian argitaratu zen. Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

Euskarazko bertsioan, 2013/1943 (1/26) orrialdean, argitaratutako arauaren Tituluan,

Honela dio:

«190/2003 DEKRETUA, apirilaren 9koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena».

Baina honela esan behar du:

«190/2013 DEKRETUA, apirilaren 9koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena».